

Garapen Iraunkorra: erakunde pribatu zein publikoek daramaten politika

(Sustainable Development: private and public entity policies)

Azkoaga Ugalde, Jon; Basurto Arruti, Asier;
Martinez Beaskoetxea, Irune; Bilbao Bilbao, Leire;
Gomez, Tamara; Miguel, Gaizka
UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak. Soziologia Saila. Sarriena, z/g.
48940 Leioa

Gaur egungo munduan nagusi den garapen ereduak etorkizunerako ekar ditzakeen kalteak neurrigabeak direla gero eta jende gehiagorentzatukaezina den baieztapena da. Izan ere, gure gizarte dagoeneko jabetzen hasia dabenetan komeni zaigun garapena garapen iraunkorra dela. Hori ikusirik, gaur egungo eredu ez sostengarriaren mekanismoan garrantziko papera jokatzan duten zenbait erakunde publiko, alderdi politiko eta entepresa pribatuk garapen sostengarriaren ideien defentsa moztortzat erabiltzen dute euren benetako aurpegia ezkutatu eta gizaratearen aurrean presentzia ona edukitzeko.

Giltza-Hitzak: Informazioaren erabilpena. Garapen Iraunkorra. Gizarte.

La afirmación de que los daños que el modelo de desarrollo imperante hoy en día puede provocar en el futuro son enormes resulta incuestionable para un número cada vez mayor de personas. De hecho, nuestra sociedad ha empezado a darse cuenta de que el desarrollo sostenible es el desarrollo que realmente nos conviene. Visto lo cual, determinadas instituciones públicas, partidos políticos y empresas privadas que juegan un papel importante en el mecanismo del modelo insostenible utilizan la defensa de las ideas del desarrollo sostenible como disfraz para ocultar su verdadero rostro y tener una presencia aceptable ante la sociedad.

Palabras Clave: Utilización de la información. Desarrollo Sostenible. Sociedad.

La thèse affirmant que les dommages que le principal modèle de développement actuel peut provoquer à l'avenir sont énormes est indiscutable pour un nombre de plus en plus grand de personnes. En fait, notre société a commencé à se rendre compte que le développement durable est le développement qui nous convient réellement. En vue de quoi certaines institutions publiques, partis politiques et entreprises privées qui jouent un rôle important dans le mécanisme du modèle insoutenable, utilisent la défense des idées du développement durable comme déguisement pour cacher leur véritable visage et présenter une présence acceptable face à la société.

Mots Clés: Utilisation de l'information. Développement Durable. Société.

Euskal Herriko Unibertsitateko soziologiako euskal adarreko 3.mailako ikasle talde bat gara.

Garapen iraunkorraren auziaren aurrean gizarteak dauzkan erreakzioetan eragina duten hainbat fenomenori buruz berba egiteko asmoa dugu.

Hasteko aipatu beharra dago, mundua garatzen ari dela esan ahal izateko, gizakiarentzat gero eta hobeagoa bihurtzen ari dela ziurtatu beharko litzatekeela. Izan ere, gizakiak izan behar du garapenaren erdigunea eta jo puntua. Helburu bezala munduko gizakiontzat bizimodu hobea izatea ziurturik, horretarako baldintzak ziurtatzea gizartearen erantzunkizuna da. Beraz, gizakia garapenaren helburu eta eragilea da aldi berean.

Inork ez du zalantzan jartzen garapen ekonomiko beharrezkoa denik; hala ere, ezin dugu edozein prezio ordaindu garapen ekonomiko horren truke. Izan ere, gaur egun nagusi den garapen ereduak bat-bateko etekin ekonomiko hobesten du beste guztia-
ren ginetik. Gaur egun aurrera eramaten ari diren politiken arabera, dena da zilegi onura ekonomikoak eskaintzen baldin baditu.: ekonomia neoliberalen oinarritutako garapenaz hitz egiten ari gara, noski.

Arazoak, ordea, laster hasten dira agerian gelditzen. Bat-bateko etekin ekonomikoak etorkizunerako garapena oztopatzen du argi eta garbi kasu askotan. Garapen eredu neoliberalera eragiten ari den kalteak neurtzen oso dira zailak, baina era berean, ukaezinezko larritasuna daukate. Neoliberalismoak bultzatzen dituen jokatzeko moduak konpetibitatea, etekin azkarrak, kontsumismoa eta antzeko beste balore batzuk dituzte oinarri-oinarrian; eta balore hauen eragina gure gizarteko giza-banakoan, enpresen eta erakundeen jokatzeko moduan nabari dezakegu. Bide horretatik jarraituz gero, gure gizarteek etorkizunean garatzeko aukerak izan ditzaten bideak mozten ari gara. Gaur egun, inoiz baino argiago dago ekonomia neoliberalak ezarritako garapen ereduarekin jarraitzea giza-kion interes orokorraren aurka egitea litzatekeela.

Neoliberalismoak etorkizunerako dakartzan arazoak eta iraunkorra den garapen eredu bat indarrean jartzeko beharra gure bizitzako arlo ezberdin askotan agertu izan zaigun gaia da. Izan ere, asko dira arazo honen inguruan lan egiten duten pertsona, talde eta gizarte mugimenduak. 1987.urtean Nazio Batuen Erakundeak etorkizuneko gizakiek euren beharrak asetzeko aukera izatea ziurtatzen duen garapen eredu baten beharra ukaezina zela salatu zuenetik, egunerokotasunean garrantzia hartzen joan den gaia da.

Gaur egun, gizartearen zati oso handi batek arazo honekiko kontzientzia bat garatu du, gutxieneko maila batean behintzat. Horri loturik, etorkizuneko belaunaldien ongizatea zalantzan jar dezaketen politiketik jarraera kritikoa gero eta gehiago zabaltzen ari dela dirudi.

Gizartean garapen iraunkorrekiko konpromisoa zabaltzen ari dela oharturik, asko izan dira nola

edo hala gertaera soziologiko honi etekina ateratzen saiatzen ari diren taldeak. Baina, hau ez da dena, askotan eredu neoliberalaren bultzatzaile eta oinarri diren erakunde publiko, enpresa pribatu eta alderdi politikok ere garapen iraunkorra erabiltzen saiatzen dira (eta erabiltzen dute) euren aurpegia zurtzeko. Hauxe da, hain zuzen ere, testu honen bitartez salatu nahi duguna: interes propioak jarraituz eta garapen iraunkorraren aurka jokatzuz, gure gizarteko zenbait eragilek euren ekintzei zilegitasuna emateko egiten dituzten saiakerak.

Lehenago esan bezala, erakunde pribatuak erabiltzen dute garapen iraunkorra beren interesetarako. Erakunde pribatuetaz mintzo garenean enpresa pribatu handiak islatzen ditugun, transnazionalak, hau da, ekonomia neoliberal basatiaren jabegoa eta funtsa. Enpresa hauek, garapen iraunkorraren justu kontrako politika daramate. Beraien iharduera funtsezko kontraesan batean erortzen da etengabe. Enpresa hauetariko gehienak, energia arloan, erakuntza arloan, azpiegitura erraldoien arloan eta beste zenbaitetan aritzen dira. Erakunde pribatu hauek garapen iraunkorraren beharraz jabetu, gizartearen gehiengoaren iritzia dela jabetu eta akziodunen aurrean irudi ona eman guran ibiltzen dira. Gainera, lehia izugarrian oinarritzen diren enpresa hauek publizitate kanpaina jasanezinak egiten dituzte, egunkari, irrati, telebista eta beste horrenbeste hedabidetan. Esate baterako, bada enpresa bat, ez dugu izenik aipatuko, *El Pais* egunkari osoko orrialde ia guztietan bere burua saltzen zuena.

Bestalde, erakunde publikoak ere ez dira atzean gelditzen. Alderdi politiko handienez hornitutako erakunde publiko hauen politika oso da agerikoa, nahiz eta ezkutatzen saiatu. Erakunde publiko gehienak ekonomia neoliberal honen aldekoak direnez gero, ekonomiak behar dituen, hau da, askotan lehenago aipaturiko enpresa erraldoi horiek behar dituzten azpiegitura handiak egiten dituzte. Agerikoak dira Euskal Herrian pairatzen ditugun Abiadura Handiko Trena, Boroako Zentral Termikoa, Itoizko urtegia, Urbina-Maltzaga autopista eta beste zenbait txikizio. Ez hori bakarrik, hauen aurka sortzen diren gizarte mugimenduak txikitzen saiatzen dira, hau da, herriaren borondate eta nahia urratuz. Eta botere harreman mota honi (neoliberalera) aurre egiteko sortzen diren beste mugimendu batzuk, gaztetxe eta gazte asanbladen mugimendua esate baterako, garapen iraunkorraren ikuspuntuarekin bat etor daitekeena, sapuzteko etengabeko ahaleginak egiten dituzte.

Hau guztia gutxi balitz, erakunde publiko hauek, beraien burua legitimatzeko geu engainatzen saiatzen dira garapen iraunkorraren alde daudela sinestartazi nahian. Eta horretarako, adibide bat ematearren, garapen iraunkorri buruzko sailak ere sortzen dituzte.

Laburbilduz, aurretik aipatutakoak frogatzen du garapen iraunkorraren auziaz gizarteak eta honen osagarri den gizakiak erakunde publiko eta pribatuei aurre hartu diela, beste behin ere. Lehenago aipatu ditugu adibide garbi batzuk, Euskal Herrian pairatzen ditugun itxurakeriarenak.

Hala ere, gizartean arazo honekiko kontzientzia handitzen badoa ere, erakunde publiko zein pribatuak itxurakeria hutsetik garapen iraunkorrekiko konpromiso erreal eta benetako batera pasa arte zaila izango da egoera hobetzea.

Bukatzeko, aipatu nahiko genuke, mota honetako kongresuak aberasgarri eta onuragarriak direla, baina paper hutsean gelditzeko arriskua daukate. Horregatik, konpromiso teorikotik praktikora pasatzea beharrezkoa da.